



## EUSKADI TURISMO BONO 2021

[AGINDUA, 2021eko martxoaren 2koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita 2020ko uztailaren 28ko Agindua, «Euskadi Turismo Bono» programa 2020rako arautu eta iragarri zuena, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-, jatetxe- eta ostalaritza-sektoreetako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko.](#)

<b>Pertsona onuradunak</b>	18 urtetik gorako pertsona fisikoak izango dira laguntza hauen onuradunak, baldin eta Euskadin bizi badira edo beste leku batzuetatik bisitatzen bagaituzte.
<b>Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak</b>	<p>1.– Establezimendu, enpresa eta profesional hauek merkaturatutako ondasunak, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko aplikatuko dira deskontu-bonuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Ostatuak (landa-turismoa, aterpetxeak, apartamentuak, kanpinak, landetxeak eta hotelak).</li> <li>– Gidari turistikoak.</li> <li>– Bitartekaritzako turismo-enpresak.</li> <li>– Sukaldaritza- eta ostalaritza-establezimenduak (jattetxeak, tabernak, kafetegiak).</li> <li>– Naturan egiten diren kirol-jarduerak eskaintzen dituzten enpresak, hala nola turismo aktiboa eta abentura-turismoa.</li> <li>– Turismo-garraioko enpresak.</li> <li>– Kultura-, gastronomia- eta natura-ondarea ezagutarazten duten enpresak.</li> <li>– Aisia-zentroak.</li> </ul>
<b>Establezimendu partehartzaileen baldintzak</b>	<p>1.-Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden establezimendu eta enpresak, pertsona fisikoak edo juridikoak izan, baldintza hauek betetzen badituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Beren jardueraren helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruan turismoko, sukaldaritzako eta ostalaritzako ondasun, produktu eta zerbitzuak kontsumitzeko eskaintza izatea.</li> <li>b) Pertsona autonomoak, mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak (ETE) izatea.</li> <li>c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan behar dituzte.</li> <li>d) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izan behar dituzte, hala badagokio.</li> </ul>
<b>Funtzionamendua</b>	<p>1.– Deskontu-bonuak hiru baliotan emango dira (5, 10 eta 20 euro), eta programari atxikitako establezimendu eta enpresetan onuradunek egindako erosketa-balioaren arabera aplikatuko dira (20, 40 eta 60 euro).</p> <p>2.– Deskontu-bonuek honela funtzionatuko dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– 5 euroko deskontu-bonuak 20 euroko gutxieneko erosketetan erabili ahaliko dira programari atxikitzen zaizkion ostalaritzako, sukaldaritzako eta interes turistikoko jardueretako establezimendu eta enpresetan.</li> <li>– 10 euroko deskontu-bonuak 40 euroko gutxieneko erosketetan erabili ahaliko dira programari atxikitzen zaizkion ostalaritzako, sukaldaritzako eta interes turistikoko establezimendu eta enpresetan.</li> </ul>

	<p>– 20 euroko deskontu-bonuak 60 euroko gutxieneko erosketetan erabili ahalko dira programari atxikitzen zaizkion ostalaritza-establezimenduetan.</p> <p>3.– Programari atxikitako establezimendu eta enpresek deskontu-bonuen kopuru jakin bat eskuratu ahal izango dute.</p> <p>4.– Deskontu-bonuak atxikitako establezimendu eta enpresek berek aplikatuko dituzte turismo, sukaldaritza eta ostalaritzako ondasun, produktu eta zerbitzuak erosten diren unean; gehienez ere bi deskontu-bonu emango dituzte establezimendu edo enpresa bakoitzean faktura bakoitzeko, eta erabiltzaile bakoitzak <b>gehienez ere 40 euroko deskontua izango du, eta NANaren</b> bidez identifikatu beharko da.</p> <p>5.– Atxikitako establezimendu eta enpresek onuradunaren nortasuna egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute plataforman egiten duten eragiketa bakoitzeko, baita deskontu-bonuarekin jarduteko beharrezkoak diren zenbatekoen faktura ere. Halaber, plataforma horretan gorde, kontabilizatu eta ordainduko dira atxikitako establezimendu edo enpresa bakoitzari aplikatutako deskontu-bonuak.</p>
<b>Programara atxikitzeko prozedura</b>	<p>1.- Atxikitze-inprimakia eta dokumentazio osagarria formalizatzea.</p> <p>2.- Atxikitzeko epea: 2020ko urriaren 6tik 27ra.</p> <p>3.- Ganberek jakinaraziko diete saltoki eskatzaileei programari atxiki edo baztertuak izan direla.</p> <p>4.- Atxikitako establezimenduei beharrezko dokumentazioa eta programaren sustapen-materiala emango die Ganberek.</p>
<b>Atxikipenean aurkeztu beharreko dokumentazioa</b>	<p>1.- Atxikimenduak helbide honetan egingo dira: <a href="https://www.euskaditurismobono.eus">https://www.euskaditurismobono.eus</a></p> <p>2.- Entregatu beharreko dokumentazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• EJZren ziurtagiria</li> <li>• Establezimenduaren irudia (500x500 pixel (gehienez 600K))</li> </ul>
<b>Deskontu-bonu motak</b>	<p>– Ostalaritzako bonua. Eustaten estatistika-taulen sailkapenean «563. edarien establezimenduak» kalifikazioa duten establezimenduentzat, turismo-arlo bereizgarrienei dagozkienak.</p> <p>– Sukaldaritzarako bonua. Eustaten estatistika-taulen sailkapenean «561. jatetxeak eta janari-postuak» kalifikazioa duten establezimenduentzat, turismo-arlo bereizgarrienei dagozkienak.</p> <p>– Turismo-intereseko jardueretarako bonuak. Sukaldaritza, ostalaritza eta ostatuez bestelako establezimendu eta enprezentzat.</p> <p>– Ostatu-bonua. Ostatu-establezimenduetara zuzenduta.</p>
<b>Bonoak trukatzeko funtzionamendu- eta kudeaketa-sistema</b>	<p>1.– Dirulaguntzen programa kudeatzeko, plataforma teknologiko espezifiko bat ez ezik, deskontu-bonuak abian jartzeko eta funtzionamendu-operatiboa eraginkortasunez gauzatzeko egokienak diren aplikazio informatikoak ere erabiliko dira.</p> <p>2.– Plataforma horren bidez egingo dira dirulaguntzen programari atxikitzearekin lotutako izapide guztiak, bai eta deskontu-bonuak eman, lortu, aplikatu, trukatu eta konpentsatzeko eragiketa guztiak formalizatu ere, agindu honetan zehaztutako baldintzetan.</p> <p>3.– Kanpainari atxikitako saltokiek erabiltzaile eta pasahitz pertsonalizatuak izango dituzte plataforman sartzeko, eta bertan izango dituzte eskura esleitu zaizkien deskontu-kupoiak.</p> <p>4.– Establezimendu atxikiak deskontu-kupoiak eskaini ahal izango dizkie</p>

	<p>bezeroei, betiere arau honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.</p> <p>5.– Programari atxikitako establezimenduek astean behin ordaindu eta kobratu ahalko dituzte aplikatutako deskontu-bonuak.</p> <p>6.– Saltokiak erabili den bonu bakoitza formalizatuko du plataforman, eta, horrekin batera, eroslearen NANaren kopia bat eta erosketa-bat aurkeztu beharko ditu.</p> <p>7.– Baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, atxikitako saltokiei dagokien zenbatekoa likidatu eta ordainduko zaie, horretarako emandako banku-kontuan.</p>
<p><b>Programari atxikita dauden establezimenduen betebeharrak</b></p>	<p>a) Establezimenduaren kanpoaldean adieraztea programarekin bat egin dutela, publizitate-materialak ageriko leku batean jarrita.</p> <p>b) Erosleei dirurik ez itzultzea, inola ere ez.</p> <p>c) Bezeroek ikusteko moduko leku batean jartzea kanpainaren balorazioari buruzko galdetegi labur bat, nahi duenak bete dezan. Galdetegiak bete ondoren, horretarako ematen den helbidera bidaliko dira.</p> <p>d) Aukera ematea beraiekin harremanetan jartzeko, programak ongi funtzionatzen duela egiaztatzeko eta, oro har, prozesuaren eta kanpainaren inguruan zer iritzi duten jakiteko.</p> <p>e) Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari bidali arte, erosketa-bonu eta tiket guztiak edo jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten fakturak gordetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra egiaztatu eta kontrolatu ahal izan ditzan.</p> <p>f) Arduraz zaintzea plataforman sartzeko gakoak, behar ez bezala erabil ez daitezen, eta beste pertsona batzuei ez emateko konpromisoa hartzea.</p>
<p><b>Epeak</b></p>	<p>1.- Establezimenduak atxikitzea: Atxikitzeko beste epe bat irekitzen da 2021eko martxoaren 12tik 26ra.</p> <p>2.- Onuradunek establezimenduan bertan lortu ahal izango dituzte deskontu-bonuak, programaren indarraldian egindako erosketetarako: 2021eko apirilaren 13tik abenduaren 31ra.</p>
<p><b>Informazio gehiago</b></p>	<p>LEARTIBAI GARAPEN AGENTZIA 94 616 90 88</p>